

## GIZONOK MUNSTROAK AL GARA?

“Gizonak ez gara munstroak” horrela hasi zuen Michael Kaufmanek pasa den urrian Emakundek gonbidatuta eman zuen hitzaldia. Kaufman, besteak beste, Lazo Txuria kanpainaren kofundatzailea da, emakumeek sufritzen duten indarkeriaren aurkako gizonen konpromisoa adierazteko nazioarte mailan inoiz egin den kanpainarik ospetsuena eta hedatuena.

Baina munstroak ez bagara, zergatik existitzen da emakumeen aurkako indarkeria? Zergatik dira batez ere gizonak hiltzaileak, delitugileak, gudaroste, talde armatu eta terroristetako kideak, “kale borrokalaria”, tratu txar emaileak, sexu-erasotzaileak... Zergatik indarkeria horien arrazoiak aztertzen direnean normalean ez da gizon izatearen faktorea kontuan hartzen?

Gizonak indarkeria baliatzea ez dio inori –edo oso gutxiri– atenzioa ematen, normalizat jotzen da. Normalizat hartzen den moduan ere nagusiki gizonak izatea lider politiko, ekonomiko, sozial, erlijioso eta mediatikoak, filmetako protagonistak eta zientzialari, abeslari eta artista entzutetsuenak. Izan ere, indarkeria eta boterea estu lotuta daude, lehenengoari esker irauten baitu bigarrenak.

Gizarte patriarkal honetan espero da batik bat gizonak izatea boterea eta indarkeria erabiltzen dutenak, emakumeak zaintzaren ardura nagusia izatea espero den antzera. Nahiz eta askotan oso modu sotilean izan, txiki-txikitatik eta etengabe jasotzen dugu mezu hori, besteak beste, komunikabideetan, eskolan, familian eta lagunen artean.

Zorionez, pertsona guztiok ez ditugu mezu horiek modu berean barneratzen eta gero eta gehiago gara tokatu zaigun gizarte eredu sexista hau aldatu gura dugunok. Orain arte emakumeak batez ere izan dira berdintasunaren gurditik tiraka ibili direnak eta bada garaia gizonok ere neurri handiago batean inplikatzeko.

Hain justu, berdintasunaren alde eta indarkeria sexistaren aurka gizonak inplikatzeko Emakundek 2007an Gizonduz ekimena martxan jarri zuen eta ordutik hona, hainbat ekintzen artean, *Berdintasunaren aldeko eta Emakumeen indarkeriaren aurkako euskal gizonen gutuna* kaleratu genuen. 10.000 gizon baino gehiagok sinatu dute gutuna, baina hori ez da inportanteena, benetan garrantzia duena da gutunak jasotzen duen horrekin konprometitzea eta eguneroko bizitzan aplikatzea: gure inguruan jarrera matxistak ez onartuz, indarkeria baztertuz arazoak konpontzeko tresna gisa, gure buruaren eta besteen zaintzaz arduratuz, aisialdia eta boterea konpartituz, sexualitate librearen eta sexu-aukera zein sexu-orientazio librearen aurkako jarrera ororen aurka eginez, sexuaren araberako rolak eta estereotipoak alde batera utziz eta abar.

Izan ere, berdintasunaren alde eta indarkeria sexistaren aurkako benetako konpromisoa ez da ekintza isolatu bat, ez da bakarrik pankarta baten atzean jartzea, bizitza filosofia bat baizik, gure pentsamendu, ekintza eta sorkuntza guztietan presente egon behar dena. Beraz, bizitza osorako zeregina da eta ez da erraza, esan nahi duelako pribilegioei uko egin eta norbere izana berraztertu, kolokan jarri eta askotan errotik aldatzea. Hala ere, bizitzan egin daitekeen bidaiarik liluragarrienetarikoa da, askeago, osoago, benetakoago eta zorientsuago egiten gaituena. Anima zaituz!

Ander Bergara Sautua  
Emakundeko Gizonduz programaren koordinatzailea  
BERRIAN argitaratua 2015eko azaroaren 22an.